

Funtsezko jarduerak

Lehenik eta behin, gure enpresaren ardura bezeroengana iristea da, hau da, beste konpainia batzuen bidez hainbat enpresatik lortzen dugun informazioaren bidez, publizitate mota jakin bat modelatzen dugu gure proiektua interesgarria eta beharrezkoa izan dadin. Behin enpresa ezberdinak erakartzea lortzen dugunean, orduan hasten da benetako lana.

Gure jarduera nagusia hainbat enpresatako langileen egoera aztertzea da, baita langileek beren lana ahalik eta modu eraginkorrean egiteko dituzten beharrak aztertzea ere. Azterketa hori egin ondoren, espazio pertsonalizatua planteatuko dugu, langileen erosotasuna eta atsedetik onena aurkitzeko.

Diseinua amaitu ondoren, enprekin harremanetan jarri eta hitzordu bat zehaztuko genuen, non negozioaren arduradunekin bilduko ginateke xehetasun batzuk nabarmentzeko eta proiektuaren sortze-prozesua ixteko. Bileren ondoren, diseinua amaitutzat emango zen, eta enpresan bertan eskatutako espazioa eraikitzeko prozesuari ekingo genion.

Eraikuntza guztia egin ondoren, gure lana amaituko litzateke eta gure bezeroek askoz langile eraginkorragoak izango lirateke, gure zerbitzuari esker.

Hori gertatuko ez balitz, enpresa gurekin harremanetan jarri ahal izango litzateke diseinatutako espazioan aldaketak iradokitzen. Gu gara erreforma honek ekarriko lituzkeen gastu guztien erantzule.